

txostena



 <p>Universidad del País Vasco</p>	 <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	 <p>hegoa</p> <p><small>INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL NAZIOARTEN LANIKETA ETA GARAIPENARI BURUZKO IKASKETAK INSTITUTUA</small></p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INSTITUTIO LANBIDEA ETEN GARBIAN BAZTERREAN BAZTERREAN

www.hegoa.ehu.es

Bilbao

Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

Donostia-San Sebastián

Carlos Santamaría. UPV/EHU
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

Vitoria-Gasteiz

Arabako Campus-eko Liburutegia. UPV/EHU
138 kutxatila • Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxe: 945 01 42 87
hegoa@ehu.es



aurkibidea

Aurkezpena	3
Garapenerako prestakuntzarako, sentsibilizaziorako eta heziketarako jarduerak	5
Ikerketa jarduerak	13
Argitalpenak	19
Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak	25
Aholkularitzako eta gaikuntza teknikoko jarduerak	27
Sare eta aliantzetako partaidetza	30
Erakundearen organigrama	32
Txosten ekonomikoa	33

aurkezpena

Pasatzen ari garen krisi larriak indartu egiten du, indartu ere, Hegoak beharrezko eraldaketa sozialaren alde duen konpromisoa. Hala, bada, gure moduko institutu batek, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren arloetan zentratutik, bere ezaugarriak, ahal baldin bada, sendotzeko betebeharra du: hautabidezko proposamen bideragarriak eskaintzen dituen pentsamendu baten alde egitea; gure jardueren zorroztasuna eta kalitatea, nahi den eragina erdiets dezaten; beste agente batzuekin antolatzea eta gogoetaren eta ekintzaren artean behar den oreka bermatzeko moduko eragin politikoa; konpromiso feminista, egiazko jabetzearen bitartez baino ezin baita aurrera egin emantzipazio-bidean; eta garapenari buruzko ikasketa-arlo bat sendotzeko apustua, gizon-emakumeei zein planetari eragiten dieten maila globaleko zein tokiko alderdiei heltzeko modukoa, ikuspegi multidimentsionalez, betiere.

Horiek dira 2011n zehar gure plangintza estrategikoa taxutzeko eta burutzeko erabili ditugun ardatzak, urtean zehar aurrera eramandako ekimenen multzoaren euskarri diren ardatzak, hain zuzen. Guztien artean, hauek nabarmentzen ditugu bereziki:

Graduondoko prestakuntzaren arloan, nabarmendu behar dugu *Garapenari buruzko Ikasketak* deritzon doktorego-programak (Hegoa Institutuak koordinatzen du eta Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia Aplikatua IV, Soziologia, Soziologia 2, eta Enpresa Zuzenbidea sailek parte hartzen dute) *Bikaintasuneranzko Aipamena* delakoa jaso duela, Hezkuntza Ministerioaren mendeko ANECA agentziak emana (Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación). Hori programaren ikerkuntzako kalitatearen zein ikerkuntza hori osatzen duten ikerketa-ildoen aitormena da.

Ikerkuntzaren arloan, *Hegoa. Garapenari buruzko Ikasketak* izeneko Prestakuntza- eta Ikerketa-Unitatea (PIU) eratu da UPV/EHUren barruan. UPV/EHUko bi institutuk parte hartu dute horretan (Hegoa institutua eta GEZKI ikasketa kooperatiboei buruzko institutua), bai eta hiru ikerketa-talde finkatuk ere: bi talde Hegoa institutuko ikerlari zenbaitek eratzen dituzte, eta bestea, Soziologia I saileko ikerlari batzuek.

Konpromiso feministari dagokionez, Genero Zuzentasunaren aldeko Antolakuntza Aldaketarako Plana deritzona taxutu du, jarduera eta arlo guztietan, kanpokoetan zein

barnekoetan, ikuspegi feminista gehitzen duen antolakunde bat eratze aldera. Horretarako, badu *Generoko Barne Taldea*, plana bete dadin bermatzeko ardurarekin. Era berean, *Feminismoa eta Garapena* ikerketa-taldea sortu da, ikuspegi hori garapenari buruzko ikasketetan funtsezko osagaitzat ezartzea helburutzat hartuta, bai eta Hegoa institutuko ikerketa guztietan zeharkako bihurtzea ere.

Aliantzen eta eragin politikoaren arloan, aipatu behar da Hegoa institutua *Red Española de Estudios de Desarrollo (REEDES)* sustatzeko taldean izan dela; delako sarea hainbat pertsonak eta erakundek eraturiko elkartea da, garapenaren arloko prestakuntza eta ikerkuntza sustatzeko xedez. Nabarmendu behar dugu, halaber, *Euskal Herriko Elikadura Subiranotasunaren aldeko Aliantza* delakoan sartu izana. Ekimen horretan, batera parte hartzen dute hainbat gizarte-mugimenduk eta GGKEk eta unibertsitateak, eta haren helburua da nekazaritza industrialaren aurreko hautabidezko proposamen politiko hori sendotzea.

Ondoren, ekimen horiek zein 2011. urtean aurrera eramán ditugun beste batzuk aurkezten dizkizuegu, Hegoaren izaeraz eta jardueraz ikuspegi orokorra izateko balioko duelakoan.

Luis Guridi
Hegoa Institutuaren Zuzendaria

garapenerako prestakuntzarako, sentsibilizaziorako eta heziketarako jarduerak

Hegoa Institutuak eskaintzen dituen graduondokoak

Garapenerako prestakuntzako, sentsibilizazioko eta hezkuntzako jarduerak irakaskuntza-mota baten baino gehiagoren bidez egiten dira. Batetik, doktoregoko programa, graduondoko ikastaro ofizialak –Europako Goi Hezkuntzako Ikasketen (EGHI) formatura egokituta– eta UPV/EHUK eskaintzen dituen titulu propioak daude. Beste alde batetik, Hegoa Institutua osatzen dugun pertsonok graduondoko ikastaro ugarian parte hartzen dugu (doktoregoa, maisutza, espezializazioa eta diplomaturak), Espainiako, Europako eta Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan. Azkenik, jarduera hori osatzeko, hainbat ikastaro, hitzaldi, lantegi eta mintegi ere egiten dira, beste unibertsitate, GGKE edo erakunde batzuek eskaturik.

■ Doktorego programa

Garapenari buruzko Ikasketak deritzon doktorego-programa UPV/EHUn doktorego-eskaintzaren barrukoa da, eta Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia Aplikatua IV, Soziologia, Soziologia II, eta Enpresa Zuzenbidea sailek koordinatzen dute.

Garapenari buruzko Ikasketak doktorego-programak honako ikerketa-ildo hauek ditu: Garapena, globalizazioa, eta nazioarteko fluxu ekonomikoak; Nazioarteko erakunde ekonomikoak eta integrazio ekonomikoak; Garapenerako lankidetzeta eta gizaldekotasuna; Ingurumena eta garapen iraunkorra; Generoa eta garapena; Garapenaren finantzaketa eta mikrokredituak; Landa-garapena eta elikagaien segurtasuna; Toki-garapena eta lurraldea; Migrazioak eta kogarapena; Parte-hartzea, demokrazia eta giza eskubideak; Giza garapenerako eta

iraunkortasunerako teknologia egokiak; Hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak; Gizarte-bazterketa, pobrezia eta desberdintasuna; Gatazkak, segurtasuna eta garapena; Lan-harremanak, gizarte-eskubi-deak eta ongizatearen eta garapenaren neurketa.

Doktorego-programak, 2011ko ekainean, Hezkuntza Ministerioak ematen duen *Bikaintasunerantzko Aipamena* deritzona jaso du. Aitormen hori, ezbaierik gabe, garrantzi handiko pizgarria da gure erakundearentzat, eta bultzada handia ematen die garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren arloko gaietan egiten den ikerketa-lanari zein gai horien hedakuntzari, UPV/EHUn barruan zein kanpoan.

■ Graduondoko ikastaro ofizialak

Globalizazioa eta Garapena Masterra

Duen xede nagusia ikerkuntzaren arloko prestakuntza ematea da, eta, batez ere, globalizazioaren fenomenoaren eta garapen-prozesuen arteko loturetan jartzen du arreta, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik. 2010-2011koan, 20 lagun matrikulatu ziren (13 emakume eta 7 gizon), EAEkoak (9), beste autonomia erkidego batzuetakoak (8), Latinoamerikakoak (2), eta EBko bat (1). 2010-2011ko edizioan, UPV/EHUKo master guztietatik, eskaera gehien jaso duen bigarrena izan da, aurretiko 136 izen-emate izan baititu.

2011-2012koan, 20 lagun matrikulatu dira (10 emakume eta 10 gizon), EAEkoak (7), beste autonomia-erkidego batzuetakoak (9), Latinoamerikakoak (3), eta EBko bat (1). Aurreko ikasturtean bezala, 175 eskaera jasota, master hau bigarrena izan da UPV/EHUn aurretiko izen-emate gehien izan dutenen artean.

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Masterra

Duen xede nagusia ikasleei garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko prestakuntza profesionala ematea da, zuzentasuna eta egiturazko pobrezia-aren aurkako borroka, giza garapena eta iraunkortasuna funtsezko erreferentziatzat harturik.

2010-2011koan, eskaera gehien jaso zuen masterra izan zen UPV/EHU (337 eskaera), eta 24 lagun matrikulatu ziren (16 emakume eta 8 gizon), EAEkoak (10), Estatu espainiarrekoak (8) eta Latinoamerikakoak eta Europakoak (6).

2011-2012ko edizioan ere, aurretiko izen-emate gehien jaso dituen masterra izan da UPV/EHU, 404 eskaerarekin (243 emakume eta 161 gizon). Matrikulatu ziren 25 lagunetatik, 11 EAEkoak ziren, 8 gainerako autonomia erkidegoetakoak, 5 Latinoamerikakoak eta 1 Afrikakoa.

■ Titulu propioak

Garapenerako Lankidetzarako Estrategiei, Agenteei eta Politikei Buruzko on-line Masterra

Master hau 2003-2011ko ikasturteaz geroztik on-line ematen den titulu propio bat da. Duen xedea da prestakuntza eta gaikuntza etengabe eta jarraitua ematea garapenerako lankidetzaren lan egiten duten pertsonen, GGKEetan, erakunde publikoetan, administrazio zentraletan nahiz eskualdeko eta tokiko administrazioetan lan eginda ere, gure lurraldean zein kanpoan aritzen direla. Horrez gain, gizarte-mugimenduetatik datozen pertsonen prestakuntza emateko erronka ere badu, eragina izan dezaten, beren ikuspegietatik, nazioarteko lankidetzaren agendan.

Masterrak 60 ECTS kreditu dauzka; horietatik, 48 atal teorikoari dagozkio, eta beste 12 kredituak amaierako lan bat eginez lortzen dira. Irakaskuntza-programa 10 irakasgaitan bananduta dago, eta masterrak, guztira, 18 hilabeteko iraupena dauka.

2011-2012ko ikasturte honetan 131 lagunek eman dute izena aurretik, eta, horietatik, 28 hautatu dira matrikulatzeko (21 emakume eta 7 gizon). 7 EAEkoak ziren, 13 gainerako autonomia erkidegoetakoak, 5 Latinoamerikakoak, 1 Afrikakoa eta 1 Europakoa.

Hegoa Institutuak ematen dituen prestakuntzako eta irakaskuntzako beste jarduerak

Garapenerako Hezkuntzari eta Hiritartasun Globalari buruzko on-line ikastaroa. 2011n, on-line ikastaro honen bigarren edizioa antolatu da, Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta arlo horretan lan egiten duten gizarte-agenteei zuzenduta. Kontuan hartuta, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegiak egiten duen proposamenaren arabera, ikastetxeak herritartasun-eskola eta demokraziaren praktika ikasteko gune bihurtu beharko liritekeela, hainbat planotan gogoeta egitea proposatzen da, eta hainbat mailatako jarduerak proposatzen dira, hezkuntza-komunitate bakoitzaren aukeren arabera.

Hegoa Institutuko irakasleen partaidetza graduondoko beste unibertsitate-irakaskuntza batzuetan

Ikasketa Feminista eta Generokoei buruzko Master Ofiziala. UPV/EHU. Irakasgaiak: Globalizazioaren erronkak; Biztanleak eta gizarte-birsorkuntza; Ekonomia feminista; Politika publikoak.

Nazioarteko ikasketen buruzko Master Ofiziala. UPV/EHU. Irakasgaiak: Gatazkak, segurtasuna eta garapena; gobernantza globalerako loturak eta erronkak.

Oinarritzko eskubideei eta botere publikoei buruzko Unibertsitate Masterra. Irakasgaiak: Enpresa transnacionalak eta giza eskubideak.

Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterra. UPV/EHU (Zuzenbide Fakultatea). Irakasgaiak: Ekonomia feminista; Familia-politikak; Genero-ikuspegidun aurrekontuak. Titulu propioa.

Generoari eta Garapenari buruzko Magisterra. Nazioarteko Ikasketen Complutense Institutua (ICEI). Madrilgo Complutense Unibertsitatea. Irakasgaiak: Globalizazioa, generoa eta garapena; Garapenaren gizarte-oinarriak. Gizarte-politikak:

Gobernantza eta Politika-Ikasketei buruzko Masterra. Politika eta Administrazio Zientzia saila. UPV/EHU. Irakasgaia: Enpresa transnazionalak, gobernantza eta globalizazioa.

Nazioarteko Harremani eta Afrikako Ikerketei buruzko Masterra. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Irakasgaiak: Ikerkuntzaren metodologia: tesina bat egiteko orientabide praktikoa; Ikerkuntzarako sarrerako mintegia.

Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketari buruzko Masterra. Lan Harremanen Unibertsitate Eskola. UPV/EHU. Irakasgaia: Negoziazio kolektibo transnazionala.

Programa eta Politika Publikoen Ebaluazioari buruzko Magisterra. Kudeaketaren Ikerketarako Zentroa. Madrilgo Complutense Unibertsitatea. Irakasgaia: Ebaluazioaren informazio-beharrak.

Gizartearen Garapenerako eta Esku-hartzerako Lankidetzaren erakundearen Kudeaketari buruzko Masterra. Oviedoko Unibertsitatea.

Garapenerako, Kudeaketa Publikorako eta GGKEetarako Lankidetzari buruzko Master Ofiziala. Granadako Unibertsitatea.

Nazioarteko Ekintza Humanitarioari buruzko Masterra. Deustuko Unibertsitatea.

Europako Nazioarteko Ekintza Solidarioari buruzko Masterra. Carlos III Unibertsitatea.

GGKEen Kudeaketarako eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Masterra. ETEA.

Garapen Iraunkorraren Lankidetzarako Masterra. Comillasko Pontifize Unibertsitatea.

Garapenerako Lankidetzari buruzko Unibertsitate arteko Master Ofiziala. Universitat Jaume I, Uni-

versitat de València, Universitat Politècnica de València, Universitat d'Alacant unibertsitateak eta Institut Interuniversitari de Desenvolupament Local (IIDL) institutua.

Garapenari edota Lankidetzari buruzko graduondokoa, Kordobako, Murtziako eta Bartzelonako unibertsitateetan, Valentziako Unibertsitate Politeknikoan, eta Granadako eta Extremadurako unibertsitateetan.

Unibertsitate-aditua Herri Administrazioetako Politiken eta Zerbitzuen Ebaluazioan. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UNED). Modulua: Ebaluaketaren komunikazioa eta emaitzen erabilpena. Titulu propioa.

Gizarte Afrikarrak eta garapena. Centre d'Estudis Africans (CEA) eta Pompeu Fabra Unibertsitatea.

Hegoak antolatutako jardunaldiak eta mintegiak

XVI. Jardunaldiak BBK. *Ordena global zuzena erakitzea giza garapenetik.* Bilbon, urtarrilaren 25etik 26ra. Ondorengo parte-hartzaileak aritu ziren mundu-ordena berria eratzeari eta giza garapenak horretan izan dezakeen rolari buruzko gogoetarako jardunaldi hauetan: Miguel Ceara, PNUDeko Giza Garapeneko Bulegoko koordinatzailea, Dominikar Errepublikakoa; Celia Amorós, katedraduna eta idazle feminista; Albert Roca, Lleidako Unibertsitateko antropologiako irakaslea eta Studia Africana aldizkariko zuzendaria; eta Dora María Téllez, borrokalari sandinista, osasun-ministroa eta diputatua izanikoa, historialaria, Movimiento Renovador Sandinista delakoko buruzagietako bat.

Honako argitalpenak aurkezteko jardunaldia: Herri-tartasunerako Hezkuntza. Zortzi autonomia-erkidegotako egoera eta Herri-tartasun Globalerako Hezkuntza. Hezkuntza jarduerarako estrategiak. Bilbon, ekainaren 28tik 29ra. Jardunaldi horretarako, solaskide hauek izan zituen hitzaldi-solasaldi bat antolatu zen: M^a Xosé Agra Romero, Santiago de Compostelako Unibertsitateko katedraduna eta Àngels Martínez-Bonafé, Valentziako

Isabel de Villena BHIko irakaslea, Pedagogi Berrikuntzarako Mugimenduen Federaziokoa.

Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak. Ekonomia Zientzien Fakultatea eta Zubiria Etxea (Sarriko). UPV/EHU, azaroaren 24an eta 25ean. Antolatzeke aholku-batzordean, Hegoako lantaldeko Gema Celorio eta Alicia López de Munainez gain, honako hauek aritu ziren: Ignacio Álvarez, Granadako Unibertsitateko Garapenerako Lankidetzako Ekimen Zentrokoa (CICODE); Alejandra Boni, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Industria Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikokoa; Aquilina Fueyo, Oviedoko Unibertsitateko Irakasle Prestakuntzako eta Hezkuntzako Fakultatekoa; Javier de Prado, Kordobako Unibertsitateko Garapenerako Lankidetzako Katedrako; eta Juanjo Celorio, UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Ekitaldiaren xedea zen unibertsitatearen konpromiso sozialari eta irakaskuntzako eta ikerkuntzako jardueran hura mamitzen den moduari buruzko eztabaidan jardutea. Unibertsitatean bultzatzen diren garapen-ereduen gaineko kritika bat planteatu zen, bai eta ikerkuntzari eta etorkizuneko profesionalen prestakuntzari buruzko gogoeta bat ere. Unibertsitatearen gizarte-funtzioa nabarmendu nahi izan zen, ikuspuntu etiko batetik eta norberaren komunitatearen zerbitzura; horretarako, bai Espainiako estatuko bai Mexikoko eta Ekuadorreko beste unibertsitate batzuetan abian jarritako esperientzien ekarpenak azaldu ziren.

Eztabaidan Espainiako estatuko hainbat tokitako 100 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, eta handik estrategia-ildoak sortu ziren unibertsitatearen esparruan garapenerako hezkuntzari buruzko gogoeta eta lana bideratzeko: sentiberatzea; prestakuntza eta irakaskuntza; ikerkuntza; eragin politikoa; eta gizarte-mobilizazioa.

Lanerako eta parte-hartzezko diagnostikorako mintegiak gai hauek aztertzeke: emakumeen eskubide ekonomikoak; generoa, gatazkak eta emakumeen aurkako indarkeria; eta emakumeen eragin politikoa

eta herritar parte-hartzea. Bilbon egin ziren 2011ko ekainetik urrira bitartean. Mintegi horien bitartez, batetik, GGKE-en ekimenen inguruko gogoeta kritikoa egin nahi izan da, eta, bestetik, feminismoaren aldetik eraldatzaileak diren lan-ildoak zehaztu, gai horietako bakoitzari dagokionez. Mintegi horietako diskurtso-azterketaren emaitzak argitalpen batean plazaratuko dira. Lankidetzako ohiko agente gisa, 15 GGKEren laguntza izateaz gain, mugimendu feministako 6 elkartek ere era aktiboan parte hartu dute, eta interes handikotzat jotzen da haien presentzia, garapen-subjektu gisa betetzen duten rola aitortuta aldi berean.

Hegoa Institutuko irakasleek parte hartutako beste ikastaro batzuk

Gizarte-Erantzukizun Korporatiboa eta giza eskubideak: enpresa transnazionalen kontrol-mekanismoak. Garapena berriz pentsatu ikastaroa. Kooperazioa, giza eskubideak eta enpresa transnazionalak ikastaroa. Gaztela-Mantxako Unibertsitatea (Albacete), Kordobako Unibertsitatea, eta OMAL-UPV/EHU.

Enpresa transnazionalak, Herrien Epaitegi Iraunkorraren aurrean: eskubideen merkantilizaziotik, hegemoniaren aurkako sareetara. XXVI Edició Curs d'Estiu Unibertsitat Internacional de la Pau: Alternatives per a un món més just.

Les empreses transnacionals com a vulneradores de drets socials. La defensa dels drets socials davant les retallades ikastaroa. Observatori DESC, Bartzelona.

Sindikatuak eta gizartearen ekintza transnazionala: esku hartzeko proposamenak, botere korporatiboaren aurrean. Garapena berriz pentsatu: eredu aldatzeko proposamen eta alternatibak ikastaroa. XII. Uda Ikastaroak, Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU.

Enpresak eta giza eskubideak, kontzeptu batezinezinak? 29è Curs de Drets Humans. Institut de Drets Humans de Catalunya.

Giza Garapena: 2010eko Txostena. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelei eta politika publikoei buruzko Espezializazioarako Nazioarteko Diplomatura. Henry Dunant Fundazioa. Donostia-San Sebastián

Transnazionalen boterea. Nazioarteko Lankidetzaren Ikastaroa. Setem. Nafarroa.

Giza segurtasunetik haratago? Nazioarteko Harremanetarako segurtasunari buruzko ikerketak kritikoen erronkak. Nazioarteko Zuzenbideari eta Nazioarteko Harremanei buruzko ikastaroak. UPV/EHU. Vitoria-Gasteiz.

Gerraoste hotzeko Afrikako bakearen eraikuntza eta estatu berreraikuntza. Afrikako errealitateari buruzko hastapeneko ikastaroa: lankidetzaren baina harago. GEA (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikasketa Afrikarren Taldea).

Globalizazioaren eta krisi ekonomikoaren aurrean: ekonomia sozial eta solidarioa. Prestakuntza-ikastaroa. Saharar Errefuxiatuen Kanpamentua. Tinduf.

Garapenerako lankidetzaren bilakaera eta erronkak. Garapenerako lankidetzarako sarrera ikastaroa. Ibaetako Campusa.

Globalizazioa. Garapenerako lankidetzarako sarrera ikastaroa. Ibaetako Campusa.

Garapenerako lankidetzaren bilakaera eta erronkak. Garapenerako lankidetzarako sarrera-ikastaroa. Ibaetako Campusa.

Globalizazioa. Garapenerako lankidetzarako sarrera-ikastaroa. Ibaetako Campusa.

Garapenerako lankidetzaren hastapena. Garapenerako eta iraunkortasunerako lankidetzaren solidarioari buruzko ikastaroa. Farmazia Fakultatea.

Benetako globalizazioa. Verán-go Unibertsitatea. Pobreza e infancia: retos á cooperación para o desenvolvimiento. Manos Unidas eta Santiagoko (Galizia) Unibertsitatea.

Garapenerako lankidetzaren solidarioari buruzko ikastaroa. Ikasleen Unibertsitate Eskola. UPV/EHU. Vitoria-Gasteiz

Globalizazioa eta garapena. Leonekin-en prestatuntza-ikastaroa. Bilbo.

Afrikako errealitatearen hastapena: lankidetzaren baina harago. Ikastaroa. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikasketa Afrikarren Taldea, GEA/UAM. Casa Encendida. Madril.

Globalizazioa, estatuak eta merkataritza: enpresa transnazionalen boterea mundu garaikidean. Garapena birpentsatu: lankidetzaren baina harago eta enpresa transnazionaleri buruzko ikastaroa. Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL). Vitoria-Gasteiz; OMAL eta Garapeneraren Lankidetzarako Unibertsitate Bulegoa. Extremadurako Unibertsitatea (Cáceres.)

Tokiko giza garapena: globalizazioarako alternatiba. "Erakunde sozial eraginkorrak eraikiz" giza garapenerari eta bakeari buruzko diploma. Sedes Sapientiae Unibertsitate Katolikoa. Guamán Poma. Cusco.

Benetako globalizazioa. Iparraldeko-Hegoaldeko ikastaroa. Elizbarrutiko Misioak, Cáritas eta Teologiaren eta Pastoralaren Elizbarrutiko Institutua. Bilbo.

Giza garapenerako iraunkorra. Garapenerako lankidetzarako estrategiei buruzko ikastaroa. SETEM. Vitoria-Gasteiz

Garapenerako kontzeptua eta bere bilakaera. Giza garapenerako ikuspuntua. Garapenerari eta lankidetzaren solidarioari buruzko unibertsitate-ikastaroa. Garapenerako lankidetzarako Bulegoa. UPV/EHU. Vitoria-Gasteiz.

Gaur egungo giza garapena eta garapenerako ekonomikoa. Elkartasunaren bideak. XXX. Udako Ikastaroak. Pertsona nagusien partaidetza soziala, erronka sozial handien aurrean. Donostia-San Sebastián.

Garapenerako ekonomikotik giza garapenera. Mugarik Gabeko Ingeniaritzaren (MGI) ikastaroa. Bilbo.

Garapenerako kontzeptua eta bere bilakaera. Garapenerako ikuspuntua. Garapenerari eta lankidetzaren solidarioari buruzko ikastaroa. Gizarte Laneko Eskola. Vitoria-Gasteiz.

Feminismoak garapenaren agendan. Oviedoko Unibertsitateko genero eta aniztasunari buruzko masterretako ikasleekin eginiko mintegiak; Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapena, eta Globalizazioa eta Garapena (Hegoa/EHU).

Garapenerako Hezkuntza, eskolan. Fons Menorqui de Cooperació antolatutako ikastaroa. Menorca.

Garapenerako Hezkuntza. *Garapena, lankidetzaren eta teknologia* XII. mintegia. MGI. Bilbo.

Garapenerako Hezkuntza, gaur. Erronka eta proposamen berriak. Udako ikastaroak. Kantabriako Unibertsitatea.

Garapenerako eta Herritartasun globalerako Hezkuntzari sarrera. Hezkuntzaren arloko ikuspuntua. Ikastaroa. Huelvako Diputazioa eta Irakasle Zentroa. Huelva.

Hegoako irakasleek emandako hitzaldi eta tailerrak

Krisialdi juridikoa, instituzionala, estatala... (botere ekonomiko-juridikoa Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen aurrean eta GEKen agerpena) eta erantzun gisa sare kontra-hegemokikoen agerpena. Hitzaldia. STEE-EILAS sindikatua, Psikologia Fakultatea. UPV/EHU. Abenduak 26.

Soft law eta gobernantza. Horniduraren kate globalerako Erantzukizunari buruzko Nazioarteko. II. Jardunaldia. Hitzaldia. Zaragozako Udala eta Setem. Zaragoza. Apirilak 14.

Herritartasun globalerako hezkuntza, eskolatik. Inaugurazio-hitzaldia. *Eskolako Garapenerako Hezkuntza Globalaren sarrera*, irakasleak prestatzeko ikastaroa. Hezkuntza Ministerioa, UNEDekin lankidetzan. Valentzia, uztailearen 4tik 8ra.

Garapenerako Hezkuntza. Unibertsitateari ere egindako ikuspegi kritikoa. Hitzaldia. *Garapenerako Hezkuntza eskolara hurbilduz mintegia.* CICODE (Granadako Unibertsitatea) eta APY-Solidaridad en Acción fundazioa. Melillako campusa, azaroaren 9tik 10era.

Hezkuntzako lanaren metodologia, ikasgelako garapen globalerako. Tailerra. *Eskolako garapenerako hezkuntza globalaren sarrera*, irakasleak prestatzeko ikastaroa. Hezkuntza Ministerioa, UNEDekin lankidetzan. Valentzia, uztailearen 4tik 8ra.

Enpresa transnazionalak, giza eskubideen aurrean. Jardunaldiak: Eskubideak salgai. Herritarron eskubideak vs ekonomia globala. Hitzaldia. Donostia mundu artean programa. Donostiako Udaleko Berdintasun eta Lankidetzaren Saila. Martxoak 31.

Bakearen eraikuntza, garapena eta lankidetzaren, Palestinako Lurralde Okupatuan. Palestinan dauden Espainiako GKEetako eta Lankidetzarako Bulego Teknikoetako langileei emandako tailerra. Ramallah, urriaren 23a.

Garapena aterpean, eta ekonomia sozial eta solidarioa. Mintegia. Saharar Errefuxiatuen Kanpamentua. Tinduf. Otsaila.

ITUN Programaren ebaluazioa. Hitzaldia. Jardunaldiak: *Avaluació de programes del tercer sector social: visió internacional i perspectives per a Catalunya.* Kataluniako Ebaluazio Institutua (IVALUA). Bartzelona. Azaroak 3.

Ebaluaziorako ereduak eta paradigmak. Tailerra. Lehiakortasunerako Euskal Institutua. Urriak 7.

Giza garapena eta boterearen deszentralizazioa: Rif eta Euskadiren arteko perspektiba konparatua. Hitzaldia. Kultur jardunaldiak: *Nolako etorkizuna du Rifek? Rif para el Desarrollo Sostenible* elkarteak. Al Hoceima, 2011ko uztailea.

Mikrofinantzak: analisiak, esperientziak eta eraginararen ebaluazioa. Mintegia. Valladolideko Unibertsitatea, 2011ko urria.

Nazioarteko lankidetzaren, tokiko garapenerako babes gisa. II. jardunaldiak: Lankidetzarako estrategia globalak. Pablo Olavide Unibertsitatea, Sevilla. Ekainaren 13tik 15era.

Iparra eta Hegoa, XXI. mendean. Hitzaldia. Zumarraga, otsailak 24.

Giza Garapenaren Indizetik 20 urtera: balantzea eta erronkak. 2012ko Giza Garapenaren Txostenaren aurkezpena. Mahai-ingurua. UNESCO ETXEA Villamonte Kultur Etxea. Getxo, apirilaren 14a.

Garapena XXI. mendean. Etengabeko sorkuntza konplexu eta askotarikoa. Gernikako Kultura eta Bake arloko XXI. Jardunaldiak. Gernika Gogoratuz. Bakea Ikertzeko Zentroa. Gernika, apirilaren 19a.

Beste ekonomia bat beste bizitza baterako. Mahai-ingurua. REAS. Bilbo, San Frantziskoko Gizarte Etxea, maiatzaren 27a.

Paradigma berri baterantz. Hitzaldia. CASAL, Cooperatives de Treball de Catalunya, Can Fulló, Mataró, ekainaren 4a.

Nola joan gizarte bidezkoago baterantz, mundu globalean?. Hitzaldia. CARITAS Euskadi. Calasancio ikastetxea. Bilbo, urriaren 15a.

Tokiko giza garapena: globalizatorako alternatiba. Pobreziaren Nazioarteko Eguna. GGKEen Koordinakundea. Eibar, urriaren 18a.

Pobreziaren gaur egungo egoera munduan. Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna. ALBOAN. Donostia, azaroaren 23a.

"Migrazioak kontrolatzeko eta garapenerako lankidetzarako politikak, Espainiaren eta Mendebaldeko Afrikaren artean, lehenengo Afrika Plana egiteko orduan" ALBOANen ikerketaren aurkezpena eta iruzkina. Jardunaldiak: Migrazioa eta garapena: politika publikoetarako ikuspegiak eta erronkak. Bilbo, otsailaren 28a eta martxoaren 1a.

Hegoako taldeak beste ekitaldi batzuetan egindako kolaborazioak

Jardunaldiak: Herritartasun globalerako hezkuntza. Oinak lurrean, amets eginez. Lankidetzaren Euskal Agentziak eskatuta, Alboanek jardunaldi horiek antolatu zituen, hezkuntza eraldatzailearen alde lan egiten duten GGKEen eta erakunde publikoen arteko topagune eta solasgunea sortze aldera. Hegoa antolakuntza-batzordeko kidea izan

zen, Alboan, CEAR-Euskadi, Círculo Solidario, Elkar Hezi, InteRed, eta Lankidetzaren Euskal Agentzia bera ere batzordekide zituela. Helburu nagusia zen EAEn garapenerako hezkuntzaren jarduera-ildoan eta lehenetasunen inguruko adostasunak zehaztea, beste eragile batzuekin aurrerago sakondu beharreko beste gai batzuekin batera, sortutako ekarpenak hurrengo gida-planari buruzko eztabaidarako erabili ahal izateko. Topaketa horri esker, hainbat elkarte eta erakunde aurrera eramaten ari diren praktika interesgarri batzuk ezagutu ahal izan ziren, eta elkartutako erakunde eta pertsonen artean elkarrizketa sustatu zein aliantzak eratu.

Politika publikoetan eragina izateko jarduerak

Hitzaldia eta "Herritartasun eraldatzaileko aldarrikapen feministak" argitalpenaren aurkezpena. Bizkaiko Batzar Nagusietan, 2011ko otsailaren 24an, María Naredo Molero legelari feminista eta emakumeen giza eskubideen alorreko adituaren eskutik. Hitzaldira joan zirenen artean, GGKEez, erakunde feministez eta sindikatuez gain, administrazio publikoetako teknikariak eta politikariak ere bazeuden; hartara, eskatu zen arlo horretako tresnak eta politikak garatzeko arduradunek kontuan har zitzaten argitalpenean jasotako eskaerak.

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren aurreko agerraldi publikoa. 2011ko martxoaren 23an. Egun hori baino lehen, bilerak egin ziren Legebiltzarreko alderdi politiko guztiekin banan-banan, gogoeta feminista sustatzearen eta erakunde-adierazpenerako egiten genuen proposamena aurkeztearen. María Naredoren laguntzarekin, emakumeen giza eskubideen aldeko agenda politikoaren aldarrikapen feministak azaldu ziren, eta erakunde-adierazpena onar zedin zegoen interesa eman zen aditzera; adierazpen hori, azkenean, martxoaren 25eko osoko bilkuran onartu zuten talde politiko guztiek, "Adierazpen instituzionala, berdintasuna giza eskubideen ikuspegitik defendatzeari buruz" izenburupean. Aldarrikapen horrek Eusko Legebiltzarraren gain uzten du emakumeen giza eskubideak eta herritartasuna erabat bete

daitezen sustatzeko ardura, eta administrazio eskumendunei eskatzen die ardura daitezela emakumeenganako errespetuaz, babesaz eta haien giza eskubideak sustatzeaz, ezein arrazorengatik, hala nola atzerritartasunarengatik, diskriminatuak izan ez daitezen, eta konpromisoa hartzen du emakumeen erakundeak eta mugimendu feminista politika publikoen gaineko diseinu-prozesuetan eta erabaki-hartzeetan berebiziko solaskidetzat hartzea.

Beka programa

Aurreko beste urte batzuetan bezala, Hegoa Institutuak Nazio Batuetako erakundeetan pasantetzak egiteko Eusko Jaurlaritzaren beka batzuk kudeatu ditu. 2011. urtean, 11 beka kudeatu ziren (8 emakume eta 3 gizon); horietatik, 7 NBE Emakumeak erakundeetan egin ziren, eta 4 ART PNUDe. Pasantetzak Venezuela, Peru, Ekuador, Brasil, Paraguai, Uruguai eta Boliviako egoitzetan egin ziren.

Beka horiek garapenerako lankidetzan maisutzaren bat egin dutenentzat dira, eta beraien xedea da Nazio Batuen programetan laguntzea; aldi berean, lankidetzagaitan esperientzia eta ezagutzak lortzeko balio dute, bai eta, bereziki, erakunde horrek bere organoen bitartez egiten duen lana ezagutzera emateko ere. ■

ikerketa jarduerak

Urtean zehar, bai ikerkuntza-arloak, oro har, bai Hegoako ikerketa-ildo eta -taldeek arloaren zein 5 ikerketa-ildo finkoen estrategia-planak 2014ra arte taxutu dituzte (Tokiko Giza Garapena; Gatazkak, garapena eta bakea; Lankidetzako politika publikoen azterketa; Gizarte-mugimenduak; eta Transnazionalak eta garapena). Era berean, feminismoari buruzko ildoaren lan-plana atondu da; hain zuzen, delako ildoak urte horretan bertan sortu da, ikerkuntza-arloan identifikaturiko lehentasuneko helburuetako bati erantzunda. Ondoren, Hegoako ikerketa-ildo eta ikerketa-taldeen lanaren alderdi garrantzitsuenak aurkezten dira.

Ikerkuntza taldeak

■ Tokiko giza garapena

Plan instituzionalarekin bat etorritik, ildo honek lau urterako ikerketa-prozesua planteatu zuen, eta horretan kontzeptu-esparru bat zehaztu beharko da, neurtzeko eta ebaluatzeko sistemak ezarri beharko dira, eta tokiko giza garapenaren inguruan esku hartzeko eta eragina izateko estrategiak formulatu beharko dira, egungo garapenaren eredu hegemonikoen aurrean bestelako aukerak ekar ditzakeen garapenaren ikuspegi gisa.

Urte honetan lan-eremuak zehaztu dira, bai teoriaren bai metodologiaren aldetik, Hegoak tokiko giza garapenaz eraiki nahi duen ikuspegiarako. Horretarako, ikuspegiaren funtsezko dimentsioak zehaztu dira, lantaldea eratu da, eta ikerketaren aurrerapena periodizatu da.

Horrez gain, "Tokiko giza garapenaren ikuspegiaren arabera, tokiko aktoreei zein nazioarteko lankidet-

zari aplika dakizkiekeen trebakuntzarako tresnen marko sistematizatua hedatzea" delakoa atondu da, eta FOCAD 2011 deialdian onartu da. Haren xedea da, 2012-2013 aldian, tokiko giza garapenaren esparru teorikoa lantzen jardutea, identifikatutako dimentsioetan oinarrituz.

Beste alde batetik, ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) forma berriak ekonomia-antolakuntzako aukera gisa aztertzeko ikerketa finkatu da. Horri dagokionez, Emaús Fundazio Sozialaren proiektu batean parte hartu da ("Iparra-Hegoa Ekonomia Solidarioaren sareak hurbilduz: praktika onak konpartituz eta sistematizatuz"), eta "Proposamen ekonomiko eraldatzaileak Andeetako eskualdean: tokiko garapen ekonomikoaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko loturak" programa formulatu da, Aholkularitza Arloak zuzenduta, ESSri buruzko ikerkuntzaren arlo handi batekin.

Aldi honetan nabarmendu beharreko beste alderdi bat izan da ikerkuntza-proiektu bat bukatu izana.

Proiektu horrek euskal lankidetzak tokiko giza garapena eta genero-ikuspegia indartzen izandako partaidetza aztertu du; hain zuzen ere, lau herrialdetan egin zen partaidetza hori –Perun, Ekuadorren, Guatemalan eta Saharan–, 1998-2008 hamarkadan.

Azkenik, nabarmendu behar da, ildo honen lanaren zati bat Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldearen esparruan egin dela, hangoak baitira kideetako batzuk.

Kideak: Alfonso DUBOIS, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, Jokin ALBERDI, Eduardo BIDAURRATZAGA, Luis GURIDI, Unai VILLALBA, Juan Carlos PÉREZ DE MEDIGUREN, David HOYOS, María LÓPEZ, Roberto BERMEJO, Mikel ZURBANO, Elena MARTÍNEZ, Xabier GAINZA, Juanjo CELORIO, Gloria GUZMÁN, Yenifer GARCÍA, Carlos PUIG, Maite FERNÁNDEZ, Luis ELIZONDO, Michel SABALZA, Marisa LAMAS, Alicia LÓPEZ DE MUNAIN, Andrés CABANAS, Gonzalo FERNÁNDEZ.

■ Gatazkak, bakea eta garapena

Hau da ikerkuntza-norabideak nabarien zabaldu duen ildoetako bat. Batetik, bakeari buruzko azterlanen, gatazken, garapenaren eta segurtasunaren arteko loturaren azterketa teorikoa egiten jarraitu da, eta, bestetik, zenbait esparru geografikotan egiten ari diren ikerketa aplikatuetan aurrera egin da. Halaber, ikerkuntza-metodologiako prestakuntzarako prozesu batzuk bultzatu dira.

Gerraosteko birgaitzea eta bakearen eraikuntza, giza eta generoko eskubideen ikuspegietatik: konponbiderako, memoria historikorako eta justiziarako eskubidea proiektuaren bitartez, 2011. urtean giza eskubideen inguruko hainbat ikerketa-lan abian jarri ziren Mendebaldeko Saharan, Kolonbian, Guatemalan eta El Salvadorren, bai eta armagabetzeko, desmobilizatze eta bergizarteratzeko prozesuaren azterketa ere, Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan. Azterlan horiek egituratzen dituzten ardatzak dira, batetik, trantsizio-justizia eta

oroimen historikoa eta, bestetik, genero-ikuspegiaren zentraltasuna azterketetan.

Antzeko lanaren beste alderdietako bat metodologiako prestakuntzako prozesuak abian jartzea izan da. Hala, bada, urte honetan *Gatazkei, Bakeari eta Garapenari buruzko Mintegi Iraunkorra* eratu da; hain zuzen ere, gatazken, garapenaren eta bakearen gaien inguruko tesiak dauzkaten doktoregaiak biltzen dituen gunea da. Gune horren esparruan hainbat jardura antolatu dira, hala nola, besteak beste, zenbait hitzaldi eta mintegi, eta lantzen ari diren tesiei buruzko sozializazio- eta eztabaidabilerak.

Horrez gain, 2011. urtean lehen urratsak egin ziren Europa mailako proiektu bat taxutzeko, Estatuko eta nazioarteko beste unibertsitate batzuekin lankidetzan, Coimbrako Unibertsitateko (Portugal) Gizarte Ikasketen Zentroak (CES) koordinaturik. Hegoak proiektu horretan parte hartzea CESekin eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikasketak Afrikarren Taldearekin ikerkuntza-jardueretan lankidetzan arituz hainbat urtetan eginiko ibilbidearen emaitza da. Azaroan, topaketa bat egin zen Coimbrako Unibertsitatean, proiektu hori zehazteko, eta 2012an aurkeztuko da, honako izenburu honekin: *WAVES: a crosscutting research on social, economic and political transformations in the Arab World*. Proiektuak arabiar munduan duela gutxi gertatu diren eraldaketetan eta altxamenduetan jarriko du arreta, eta, horretarako, zenbait kasu-azterketa hautatu dira: Maroko, Tunisia, Egipto, Libia eta Palestina.

Azkenik, nabarmendu behar da, ildo honen lanaren zati bat Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldearen esparruan egin dela, hangoak baitira kideetako batzuk.

Kideak: Karlos PÉREZ DE ARMIÑO (IN), Irantzu MENDIA AZKUE, Iker ZIRION, María LÓPEZ BELLOSO, Carlos Martín BERISTAIN, Gloria GUZMÁN.

■ Lankidetzarako politiken azterketa

Ikerketa-ildo honek arreta jartzen du lankidetzan zein garapenaren gaineko ideietan gertatuz joan diren aldaketetan, bai eta hainbat agentek lankidetzako politikak eta programak taxutu eta abian jartzean aldaketok izandako eraginean ere, politika horiek aztertu eta ebaluatzen aurrera egitea ahalbidetuko duten elementu berriak ekartzeko.

2011. urtean erreferentzia-esparrua eta metodologia-proposamena prestatu eta editatu dira, lankidetzaren deszentralizatuko politikak ebaluatzeko. Lan hori sektorean lan egiten duten edo harekin zerikusia duten agenteen esku utzi da (GGKEak, erakunde publikoak, akademikoak...), betiere, zenbait mintegitan parte hartu badute ikerlanaren emaitzak kontrastatzeko eta atzeraelikatzeke. Ildo honetan bertan, udal-esparruko lankidetzaren aztertzeke zenbait proiektutan aurrera egin da, bai eta euskal kooperazioaren epe luzeko ebaluazio batean ere; azken hori 2012an bukatuko da.

Ildo honen lan-esparruan, txostenak eta artikulatuak ere aurkeztu dira, ekarpenak egiten dituztenak garapenaren gaien zein haien aldaketei buruz, egungo garapen-planteamenduen gaineko genero-ikuspegi bati buruz, eta horrek guztiak lankidetzarako dakartzan ondorioei buruz. Beste alde batetik, garapenaren finantzaketari buruzko ikerlan-ildoan sakontzen jarraitu da, hainbat gai kontuan harturik, hala nola bereziki egoera ahulean dauden inguruneetako finantzaketa edo mikrofinantzak.

Kideak: Koldo UNCETA (IN), Jorge GUTIÉRREZ, Irati LABAIEN, Iratxe AMIANO, María José MARTÍNEZ, Michel SABALZA, Unai VILLENA, Idoye ZABALA.

■ Transnazionalak eta garapena

Ildo honetan, ahalegin handiena *"Euskal sindikal-gintzaren ekintza transnazionala"* ikerkuntza-proiektua egiten jarraitzeke erabili zen. Nahiz eta landa-ikerketa aurreko urtean egiten hasi zen, prozesuarekin aurrera jarraitu zen, eta nazioarteko mintegi batekin eman zitzaion amaiera. Mintegi horretan Kolonbiako, Brasilgo, Boliviako, Guatemalako eta Espainiako Estatuko hainbat sindikatu-ordezkarik zein UPV/EHUko eta Estatuko beste unibertsitate batzuetako irakasle zenbaitek parte hartu zuten.

Ikerketa oraindik itxita egon ez arren –izan ere, mintegiko txostenak zein proiektuaren ondorioak idazteke eta argitaratzeke daude–, ikerlanak funtsezko alderdi batzuk islatu ditu, hala nola, enpresa transnazionalak arautzeke nazioarteko neurriak bultzatzeke beharra, beharrezko kode batzuekin; enpresa transnazionalak epaitzeke epaitegi bat sortzeke beharra; enpresa transnazionalen erantzukizunaren lurraldez kanpokotasuna; eta jokabide-kodeen ordez, esparru-hitzarmen globalak ezartzeko beharra. Nabarmentzen da, halaber, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko erakunde sindikalen eta sozialen eta Latinoamerikako parekoen arteko harremanen hobekuntza, honako hauek babestuz: herrien subiranotasuna eta autodeterminazio-eskubidea; elikadurarako, osasunerako eta kulturarako eskubidea, merkataritzako salerosketak gorabehera; jabetza-eskubidearen mugaketa; giza eskubideen nazioarteko estandarrak praktikan aplikatzea, eta herri indigenen eskubideak.

Azkenik, nabarmendu behar da beste ikerkuntza-zentro eta mugimendu sozial batzuekin eginiko lan koordinatua, hala nola Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiarekin eta Red Enlazando Alternativas deritzon sarearekin.

Kideak: Mikel de LA FUENTE LAVIN, Juan HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Koldo IRURZUN, Andrea DE VICENTE.

■ Gizarte mugimenduak

Gizarte-mugimenduen ikerketa-ildoan, 2011. urtean, *Garapenerako lankidetzaren eraldatzeko agenda baterantz, gizarte mugimenduak indartuz. 1. Fasea* proiektuan jasotako jarduerak aurrera doaz. Proiektu horrek lehen bi urteetarako lana zehazten du, bost urtetarako diseinatutako ikerketa-prozesu baten barruan. Prozesu horren azken xedea lankidetzaren agenda emantzipatzaile bat eratzea da, gizarte mugimenduen eta gizarte-mugimenduentzat egindakoa.

Urte honetan egindako lanaren zati handi bat erreferentziako esparru teoriko bat eratzea izan da, prozesurako funtsezkoak diren bi gairen inguruan, hain zuzen: gizarte-mugimenduen emantzipazio-ahalmenaren azterketa, eta egungo lankidetzaren agendaren berrikuspen kritikoa, gizarte-mugimenduen ikuspegi eta jardunbidetik. Gogoeta hori egiteko erabiltzen den lan-metodologiak pisu handia ematen dio lanketa kolektiboari eta parte-hartzeari, hainbat talde eta gune ezarrita horretarako, eta gizarte-mugimenduak ikerketaren subjektuak, eta ez objektuak, direla hartzen du oinarritzko premisatzat.

Horri dagokionez, funtsezkoa da Nekazarien Bidearekin (La Vía Campesina, LVC) eta Emakumeen Mundu Martxarekin (Marcha Mundial de las Mujeres, MMM) direlakoekin batera egiten ari den lana. Era berean, sinergiak ezartzen ari dira Guatemalan gizarte-mugimenduen izandako esperientziarekin, Lankidetzaren Euskal Agentziaren herrialde-estrategiaren barruan.

Kideak: Adalberto BLANCO, Andrés CABANAS, Beatriz CASADO, Gonzalo FERNÁNDEZ, Javier GONZÁLEZ, Juan HERNÁNDEZ, Pedro IBARRA, Xarles ITURBE, Yolanda JUBETO, Zesar MARTÍNEZ, Silvia PIRIS, Pedro RAMIRO, Amaia DEL RÍO, Sarah DE ROURE, Janaina STRONZAKE, Luis Miguel UHARTE eta Daniel VON FREYBERG.

■ Feminismoa eta garapena

Hegoaren engeiamendu feministarekin bat etorritik, 2011. urtean ikerkuntza-arloak beharrezko urratsak egin ditu ildo berezi bat sortzeko, ikerkuntza feminista eta generoari buruzkoa bultzatuz, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren gaineko ikasketetan aplikaturik.

Horretarako, urte honetan talde eragile bat eratu da. Talde horren ardurak hasierako lan-plana egitea da; hain zuzen ere, planean ildo honen jarduerak eragoztekoak zehaztuko dira, epe ertain eta luzera. Lan-plan horretatik ondorioztatu da ondorengo urteetan estrategikoa izango dela hiru norabidetan aurrera egitea.

Alde batetik, ikerkuntza feminista eta generoko ikerketaren alderdi teoriko, metodologiko eta politikoei buruzko prestakuntzan sakondu behar da, Hegoan egiten diren ikerketetan generoaren zeharkakotasuna bermatzeko oinarriak sendotzeko xedez.

Beste alde batetik, garapen eta lankidetzaren arloko gaien inguruko berriak azterlan eta ikerketak diseinatu behar dira ikuspegi feministatik. Horri dagokionez, Hegoan egun zehazturik dauzkan ikerketa-interesak hauek dira: a) Emakumeei, gatazkei eta bakeari buruzko ikerlanak; b) Emakumeei eta giza garapenari buruzko ikerlanak; c) Mugimendu feministari buruzko ikerlanak; d) Generoari eta lankidetzako politika publikoei buruzko ikerlanak.

Azkenik, Hegoan feminismoari eta generoaren gaineko ikerlanei buruzko argitalpenetarako esparru bat sustatu behar da, ikuspegi horretatik egindako ikerketek ikusgaitasun, hedakuntza eta eragin handiagoak eta hobekak izan ditzaten.

Ildo horren talde eragileak kide hauek ditu: Irantzu MENDIA, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA eta Gloria GUZMÁN.

Beste ikerketa jarduera batzuk

Estatuko zortzi autonomia erkidegoko Herritartasunerako Hezkuntzari buruzko ikerketa. Lan horretan, informazioa biltzen da, eta Herritartasunerako Hezkuntzan ondorengo autonomia erkidegoek jarraitutako ibilbidea deskribatzen da: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Katalunia, Madrilgo Autonomia Erkidegoa, Valentziako Autonomia Erkidegoa, Galizia eta EAE. Hautatutako zortzi autonomia erkidego horiek hainbat aldagai konbinatzea ahalbidetzen dute, eta behatzea ea erkidegook desberdintzen dituzten ezaugarriek Herritartasunerako Hezkuntzan ikuspuntu desberdinak sortu dituzten ala ez, haren edukietan eta praktiketan zein ikasleen prestakuntzan. Halaber, autonomia erkidego bakoitzean ezarri diren ereduak gobernuak hasieran proposaturiko hezkuntza-laneko ildo orokorrek konpara daitezke; hain zuzen, ildo orokor horien helburua zen curriculum-edukiak homogeneizatzea eta, lurralde osoan, EBko herrialdeek zehazturiko eta adosturiko zortzi oinarritzko gaitasunak ikas zitezen bermatzea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzaren diagnostikoa. UPV/EHUko hainbat eragile azken urteetan garapenerako hezkuntzari buruz (GH) egiten ari diren lanaren inguruko dokumentazio guztia aztertzearen emaitza da agiri hau, ordura arte eginiko "Unibertsitatea eta Lankidetzaz" deritzen biltzarrek sorturiko dokumentazioa ere aztertzeaz gain. Gainera, lan honek Estatuko beste unibertsitate batzuetan GHren alorrean nabarmendu diren beste ekimen batzuk ere aztertu ditu; horri esker, unibertsitate-esparruan ikuspuntu horrek duen egoeraren ezaguera zabaldu ahal izan dugu. GH dei diezaiekegun jarduerak egiten dituzten eragileen bilaketak, nola UPV/EHU hala estrategikotzat jo ziren Estatuko esperientzietan, landa-lan bat ekarri zuen, galdera-sorten eta elkarrizketa sakonen bitartezkoa, eta hark argibide zenbait eman zituen ditugun indarguneei zein aurrean ditugun erronkei buruz. Lan hori abiapuntu izan zen txosten honetako 6. puntuan azaltzen diren Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak antolatzeke.

Doktorego tesiak

Defendaturiko doktorego tesiak

Las microfinanzas en el marco de la financiación del desarrollo: compatibilidad y/o conflicto entre objetivos sociales y financieros. Jorge Gutiérrez Goiria. 2011ko martxoa. Tesiaren zuzendaria: Koldo Unceta. Gizarte- eta lege-zientzien ataleko lehen aipamena jaso zuen, CRUMAk (Conferencia de Rectores de las Universidades de Madrid; Madrilgo sei unibertsitate publikoak biltzen ditu) lankidetzaz eta garapenari buruzko doktorego-tesi onenetrako antolatutako sarian.

■ Matrikulatutako doktorego tesiak

Estrategias de inversión en capital cultural y capital social en los jóvenes marroquíes en Bizkaia. Mikel BARBA DEL HORNO. Tesiaren zuzendaria: Imanol ZUBERO.

La universidad y la efectividad del desarrollo comunitario. Hacia un modelo integral de promoción de la apropiación comunitaria en las regiones autónomas de Nicaragua. José Luis SABALLOS VELÁSQUEZ. Tesiaren zuzendaria: Koldo UNCETA

La Economía Solidaria y su impacto en el Desarrollo Humano Local. Ana IAMETTI. Tesiaren zuzendaria: María Ángeles DÍEZ.

Movimiento campesino de los trabajadores Sin Tierra (MST) de Brasil. Beatriz CASADO BAIDÉS. Tesiaren zuzendaria: Zésar MARTÍNEZ

Discriminación por orientación sexual en África: Análisis de las causas, efectos y respuestas a la violación de los DD.HH. en Uganda y Sudáfrica. Aimar RUBIO LONA. Tesiaren zuzendaria: Eduardo BIDAURRATZAGA.

Rol de los actores de la cooperación descentralizada frente a los nuevos retos de la Cooperación al Desarrollo: el caso de las ONGD en la CAPV. Iratxe AMIANO BONAETXEA. Tesiaren zuzendariak: Koldo UNCETA eta Jorge GUTIÉRREZ.

El concepto de calidad en la educación superior como herramienta transformadora: Una aporta-

ción desde la cooperación al desarrollo. Marta BARRANDIARAN Galdós. Tesiaren zuzendariak: Antonio CARDONA eta Koldo UNCETA.

Descentralización, desarrollo y ayuda internacional. El papel de la cooperación internacional al desarrollo en el proceso de descentralización peruano (2002-2007). Miguel GONZÁLEZ MARTÍN. Tesiaren zuzendaria: Karlos PÉREZ.

Elikadura, giza eskubidea: La Vía Campesinaren arau proposamen eta berrinterpretazioak nazioarteko eta nazio mailatan. Nerea IZAGIRRE ECEIZA. Tesiaren zuzendariak: Juan HERNÁNDEZ eta Jokin ALBERDI.

La participación social y empoderamiento en los procesos de desarrollo. Evaluación del componente participativo en proyectos y programas de cooperación al desarrollo en Ecuador. Unai VILLALBA. Tesiaren zuzendariak: Zésar MARTÍNEZ eta Luis GURIDI.

Los sistemas de información en el marco de las políticas de cooperación descentralizada: el caso de la CAPV. Unai VILLENA. Tesiaren zuzendariak: Koldo UNCETA eta Idoie ZABALA.

Hegoa. Garapenari buruzko Ikasketak Prestakuntza eta Ikerketa Unitatea (PIU)

